

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko apirilaren 10a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Lekunberri • Ekitaldi ugari izanen dira igandean hasiko den Aste Kulturalean.

Rosa Aldaz • Beharrak enpresari izatera bultzatu zuen emakumea.

Miguel Sanchez-Ostiz



«Jaso dudan saria ezin dute ez talde editorialek ez komertzialek kontrolatu»

Lekunberri • VII. Kultur Astea ospatuko du Mitxauseneak

Datorren astelehenean hasi eta igandera bitartean ekitaldi ugari izango dira kultur etxean

Aurten ere Pazzo Astelehenez hasiko da Mitxausenea Kultur Etxeak urtero antolatu ohi duen Kultur Astea. Zazpigarrena izango da aurten, eta haurrentzako tailerrak, hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak izango dira, besteak beste.



San Migelen santutegia hizpide izanen da aste kulturalean.

LUIS AZANZA

MITXAUSENEAK URTE OSOAN ERE ekintza pila bat antolatu ohi du. Urte osoan izan ohi dira erakusketak, hitzaldiak, kantaldiak... baina, hala ere, astebetzez ekitaldi horiek ugaritu ohi dira. Orduan, Kultur Astea dela eta, astelehenean hasi eta igandera bitartean, egunero izan ohi da zerbait Lekunberriko kultur etxean. Aurten ere berdin gertatuko da hilaren 13tik 19ra bitartean.

Etxeko txikiak oporretan izan ohi dira Aste Santuaren ondorengoan ere, horrenbestez, haien tailerrak antolatzen dituzte urtero. Aurten ere ongi pasatu ahal izango dute ume guztiek, egunero 11:00etatik 13:00etara egingo diren haur tai-

lerretan. Eskulanak, jolasak... denetarik izango da bi ordu horietan.

Baina helduei zuzendutako ekitaldirik ere ez da faltako, hala nola asteartean, 20:30etan, Aralariko San Migeli buruzko hitzaldia izango da. Gainera, hizlaria ez da nolana izango. Santutegian duela urte askotatik apaiz dagoen Inozentzio Aierbe ariko da Euskal Herriko zaindariaren berri ematen. Izan ere, hitzaldia baino lehenago, 19:45etan,

goiaingeruak urteroko bisita egingo dio Lekunberriko herriari. Pazzo igandean hasten du San Migelek, Nafarroan zehar egiten duen ibilaldia, eta asteartean, lekunberriarekin izaten du zita egina. Horregatik, aukera hori aprobetxatuz, goiaingeruari ongi etorria eman ondoren, hari buruzko xehetasunak jakin ahal izango dira Mitxausenean.

Ostegunean, kirolak hartuko du Kultur Astearen lekukoa, baina ekitaldi horretan parte hartu-

ko dutenek ez dute izerdi tantarik isuri beharrik izango: lasai-lasai, aulkitxoan eserita ikusi ahal izango baitute Lekunberriko Legoari buruzko bideo emanaldi bat. 1996, 97 eta 98. urteetako ekitaldietan kirol probak emandako irudirik bitxi eta interesgarrienak biltzen dituen bideoaren ondoren, Arruizko Txikiaren omenezko proba horretan parte hartu ohi duten zenbait lagun izango dira bertan, bere bizipean jendea azalduz.

Ostiralez, ere, pantailari begira jarriko dute jendea antolatzaileek, 20:30etatik aurrera, 40 ordu izeneko filma eskainiko baitute. Pelikula Leitzan grabatutakoa da, bertako herritarrek egina. Herri-kirol eta apustuen inguruko argudioa du, eta jendea ingurukoa izatearekin, nahikoa erakargarria suerta daiteke lekunberriarrentzat.

Aurreko egunetan inguruko kontuak landu ondoren, larunbatean, begirada urrutira luzatzeko gonbitea egingo du Mitxausenea. Lau kontinentetako bizitza nolakoa den erakutsiko du diapositiba baten bidez, eta argibide gehiago emateko, Xabier Goñi iruindarra izango da bertan.

Lekunberriko elizak hartuko du, azken egunean, igandean, Kultur Astearen lekukoa. Izan ere, igandero mezaren ostean, hilaren 19an, kontzertu berezi bat izango da. Etxarri-Aranazko abesbatzak, bere errepertorioko abestirik ederrenak eskainiko ditu, eta horrenbestean amaituko da VII. Kultur Astea. Izan ere, zazpi urteko tradizioa duen aste honek ez du aldaketa handirik izan. Beharbada, aurrekontua handitu egin da. Aurtengoa, 200.000 pezeta ingurukoa izango da (8.000 libera). Bestalde, ekitaldi kopurua gutxitu egin da. Iaz, ekitaldi pila bat antolatu zuten, baina partehartzea nahiko kaskarra izan zen.

→ Urko Aristi

metropoli forala

FELIPE RIUS



Denbora pasa ahala, ohartu egiten gara zoriona hurbil egon daitekeela eta bere bila egin ditugun kilometro guztiak, aberasgarriak izan badira ere, alferrikakoak direla, askotan zangoak eta arima nekatze baina ez dutela balio. Garai batean pentsatzen genuen zoriona eta distantzia gauza bera zirela, eta barnean nolabaiteko poza sentitu nahi bagenuen Nepal edo Thailandiarako bidea hartu behar genuen, lur haletan alaitasunaren fruituak errazago ateratzen zirelakoan. Asko ihesaren ahaleginean desagertu ziren betirako; aurrera segitu genuenok motxila bat baino ez genuen behar, argonauten antzera mugitzea ezinbesteko zeregin bakarra zen, etengabe bidaian omen zegoen estasia eta road-moviak maitatzen ikasi genuen. Kerouac-en liburuak ere adiskide izan genituen autoestopean emandako ordu luzeetan eta inoiz Europa eta

Asia kotxe zahar batean gurutzatuko genituela amets egin genuen. Granateak erosi genituen Rajastaneko desertuan, monje budistekin espiritualitateari buruz hitz egin genuen Dharamsalan te baten inguruan eta Hego Amerikako oihanetako tribu desberdinen hizkuntzak bereizten ikasi genuen. Stanleyren arrastoa ere segitu nahi izan genuen eta hareazko lautada infinitoetan barrena galdu ginen Paris-Dakar batetik ihesi. Esperientzia, Bizitza, Jakinduria, Maiuskulaz Idazten Diren Gauza Handi Horieta Asko hartzen ari omen ginen, ikasten, mundua gure eskuetan zegoen, gure oinetan. Historian zehar Marco Polorengandik hasita gizon askok izan duten desioa gauzatzen ari ginen, Corto Maltese berriak ginen, harri filosofala aurkitzea besterik ez zitzaigun falta. Orduan, zergatik ez ginen zoriontsu? Bidaietatik bueltan arkupeetan esertzen ginen eta norberak bere isto-

rioak kontaktzen zituen. Batzuetan negar pixka bat ere egiten genuen turismoa bidaiaien filosofia guztia -filosofia bat genuela uste genuen guk behintzat- hiltzen ari zelako, baina laster animatzen ginen hurrengo abenturak prestatuz. Bapatean nekea, kristoren nekea, nabaritu genuen arte. Egun batean ohartu ginen hilabeteak generamatzala hiritik, auzotik atera gabe, eta zoriontsuak ginen txandala jantzita parkearen inguruan paseo luzeak ematen. Aspaldiko abenturetatik bizirik atera ginen asko auzo berean bizi gara eta igandero elkartu ohi gara txandala, plaiarak eta eguzkirako betaurrekoak jantzita betiko karraketan barrena buelta bat emateko bermuta hartu baino lehen. Zoriontsuak izateko besterik ez dugula behar erabaki dugu, eta batzuetan harritu egiten gara hainbeste urtetan ondo-ondoan genuen zoriontasuna ikusi ez genuelako.



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

**Pertsonaia
ñimiñoak**

Autoreek mila bider erreplikatu-tako memelokeria da, guztiz egia ez den arren: beren eleberrien pertsonalek gutxi-gutxina-ka *bizitza propioa* hartzen dutela eta, kia, pertsonalek ezetz, ez dutela leku horretara joan nahi, nahiago dutela nesketan ibili, esate baterako, edo tabernara joan, baina inolaz ez hilerrira gaez eta euripean lintera bat eskuan... eta horrelako txorakeriak. Axioma hau deuseztatze-ko, zuen aurrean, azti haundi bat bezala, horrelako esku-joko bat egingo dut. Bai, asmatu du-zue. Trukorik gabe, hemen eskuak erakusten dizkizuet, pertsonaia bat sortu eta nik agintzen dizkiodan gauzak egingo ditu. Musika, mesedez. Zirkoko danborhotsak. Fokuen argiak apaltzen dira.

Horral: Nire ondora nor eta Ansuategi jauna ekarri dut! «Hola, Ansuategi Jauna» -esaten diot nik-; «hola, arratsaldeon» -erantzuten dit berak. «Prest al zaude gurekin jolasteko?». «Bai, atseginez, baldin eta legearen barruan bada». «Ez da izango ba?» -erantzuten diot nik, eta biok egiten dugu barre. Mementu honetan nire maletatik papertxo bat ateratzen dut eta irakurtzen dizuet: «Chiapasen aldeko manifa baketsuaren alde agertzen naiz eta ez dut ez gara-zaziko, ez eta polizia bidaliko». Ansuategi jaunari galde-tzen diot orduan: «Sinatuko al zenuke baimentze soil hau?». «Inolaz ere ez, legalki epe batzuk bete beharrekoak daude eta...» -hau esaten duen bitartean eskuan boligrafo bat jartzen diot eta berak sinatzen du! Txaloak. Musika. Txalo egingo. *Truko merkea*, esango didazue. Arrazoia zuentzat... beraz zallagoa egingo dugul; bolondres bat, mesedez! Orduan neska bat, oso polita, hurbiltzen zaigu eta «ez dugu elkar ezagutzen ezta?, eta abar eta abar» ziur-tatu ondoren beste paper bat ematen diot ozenki irakur de-zan, eta neska: «Euskal preso-en aldeko manifa baimentzen dut, inongo polizia gabe eta gainera helikopteratik kolorez-ko konfetiak botako dituzte». Papertxo Ansuategi Jaunari hurbiltzen diot. Danborhotsak. Begirada izutua du, «Ez, mese-dez...» esan orduko... sinatu du! Txaloak. Musika. Argiak gora! Musika gehiago. Bolondresari bi muxu.

«Truko merkea» segitzen du-zue, «pertsonalaxo txiki bate-kin eginga», «bolondresa zure nobia da»... Segi, segi, berdin zait. Inbidia libre da. ●


Ziordia • Udala ez dago konforme

Gobernuak lau metro zabaleko tunela egingo du azkenean

ZIORDIKO LURPEKO pasabidearen in-guruko polemika ez da amaitu. Nafarroako Gobernuak lau metroko zabalera izango duela erabaki du, baina Udala ez dago ados, eta alkateak automobilak pasatzeko moduko tunela eskatzen jarraituko du.

Jose Ignacio Palacios Herrilanteko sailburuak joan zen astean jakinarazi zuen azkenean lau metro zabaleko tunela egingo dutela Ziordian. Gobernuak hiru metrokoa egiteko asmoa zuen hasieran, oinezkoentzat eta abereentzat nahikoa zela uste baitzuen. Udalak, berriz, sei metrokoa eskatu zuen, automobileren eta autobidearen azpiko tuneletik pasatzeko modua.

Ziordiko herritarrek hainbat protesta egin zituzten sei metro zabaleko tunela eskatzeko. Presioen eraginez, gaia Parlamentura iritsi zen; alderdi politikoen aho batez onartu zuten CDNren mozio bat, konponbide eske, eta Herrilanteko sailburuak polemikari amaiera emateko beste txosten tekniko bat eskatuko zuela agindu zuen. Txostena Jose Javier Muruzabal teknikariak egin zuen. Horren arabera, «ez da errentagarria» Ziordian sei metro zabaleko tunela egitea, herrian jende gutxi denez (372 biztanle inguru) eta erabilpen gutxiarekin. Alkateak zuzenki erabiltzeko erabilgarri izan behar duela esan zuen.



Ziordiko pasabidea herritarrek nahi adina ez du onartu oraingoan ere Gobernuak. ● ARTXIBOA

azpiko pasabidea. Gobernuak egin nahi zuen proiektuaren eta Udalak eskatzen duen zabalera-ko tunelaren arteko aldea 100 bat milioi da. Hori dela eta, lau metro zabaleko tunela eraikitzea gomendatu zuen Muruzabalek, oinezkoentzat eta abereentzat aski zela esanez.

Palacios sailburua pozik agertu zen txostenaren ondorioekin - funtsean, txostena bat zeterren Herrilanteko Sailaren asmoe-kin-, eta lau metro zabaleko eta 45 metro luzeko tunela egingo du-tela iragarri zuen. Parlamentuko agerraldian, UPNko eta PSNko ordezkariak babesa eman zitoten Herrilanteko sailburuari; CDNkoak Ziordiko herritarren jarrera jakin arte ezer ez zuela esango a-ldean zuten, eta HBkoa guztiz kontra agertu zen.

Jesus Miguel Casas HBko alka-tea ere atsekabeturik eta haserre agertu zen txostenaren emaitzen berri izan zuenean. Ziordiko alka-tearen irudiko, Muruzabalen az-terketa ez da objektiboa izan, tek-nikariak Nafarroako Gobernu-aren alde egin duelako herritarren beharrei erreparatu gabe. Udala ez dago batere konforme teknika-riak proposatutako konponbidea-ekin, lau metro zabaleko tunela eginez gero autoek ez dutelako pasatzerik izango. Bestelako sus-morik ere badute Ziordiko Udale-an: Nafarroako Gobernuak HBko-ak izateagatik baztertzen dituela uste dute. Beraz, Ziordiko Udalak ez du ontratatzeko emango lau metroko pasabidea, eta sei metrokoa lortze aldera jarraituko du borrokan.

→ Uxue Zabaleta

Ibardin

**Saihesbidea
eginen da
Ibardingo
merkataritza
gunean**

IBARDINGO GAINEKO MERKATA-ritza gunean sortzen diren trafiko arazoak aurre egiteko saihsbidea eginen da. Ehun milioi, aurrekontua (lau milioi libera) izanen dute lanok, eta Nafarroako Gobernuak eta Berako Udalak hitzartutako akordio baten bidez gauzatuko dira. Nafarroako Gobernuak 61 milioi pezeta emanen ditu lanok egiteko, eta gainerakoa Udalaren esku geldituko da. Hartara, aurrekontua 100 milioietatik iragaten bada, Udalak hartuko du bere gain igotze hori. Berako Udaletik, hala ere, bertako merkatariek zerga berezien bidez aurrekontu horri aurre eginen diotela jakinarazi da. Udan eta asteburuetan Iparraldetik eta Frantziatik hurbiltzen den jende pila hartzeko arazo larriak izan ohi dira Ibardingo gunean. Trafikoa arintzeko asmoz, kilometro bateko luzerako errepidea eginen da. Zortzi metroko zabalera izanen du errepide berriak, hiruna metroko bi biderekin eta alde bakoitzean espaloi banarekin. Bidea Txori Lepo ingurutik hartuko da, eta Ibardingo maldetatik (Berako aldetik) joan da, mendi kaskoraino. Lanok egiterakoan, lurrak lortzea edota erostea, obraren kontratazioa eta haren gauzatzea Udalaren esku izanen da.

→ 1



herri aldizkariak

Eduarne Elizondo

Jasone Turunbai, Kukubiltxoko lakuntzarra

Gaixe Sakanako hilabetekariko azken zenbakian, Jasone Turunbai lakuntzarrari egin dio elkarrizketa Amaia Amilibia kazetariak. «Jasone Turunbai lakuntzarrak bost urte daramazki Kukubiltxo antzerki taldean, eta jakingo duzuen bezala, azkenaldian arrakasta izugarria lortu duen ikuskizunean buru-belarri ibili zaigu Jasone Turunbai Jasotxoren papera egiten, Oskorri eta Kukubiltxok presaturikoan, *Marijane Kanta Zan* ikuskizunean hain zuzen ere. Resurreccion Maria Azkuek jasotako ipuinetan oinarritutako lana da Kukubiltxoren azken ikuskizuna. Hone-

tan, Jasonek protagonista lanak egiten ditu. 'Kukubelt nafartarra' dela esan digu Jasonek, 'lakuntzarra', argitu».

Gaixe-ko orrialdeetan antzerkigintzaren munduan nola murgildu zen gogoratzen du Jasone Turunbaik: «UBI amaitu eta zuzenean Basauriko Antzerki Eskolara etorri nintzen. Hirugarren maila egiten ari nintzela Kukubiltxok telebistarako egiten zuen saioan lan egiteko deitu ninduen, neska bat behar zutela eta lanean hasi nintzen. *Txorromorropikotalloke* amaitu zenean hurrengo muntaiari lanean hasi ginen: *Mundua salba*

dezagun txotxongilo ikuskizunarekin. Txotxongiloak nere bizitzan ukitu gabe nituen. Hauekin mundu berri bat zabaldu zitzaidan. Ondotik beste ikuskizun batzuk etorri ziren... Eta horrela bost urte pasatu dira».

Kukubelt ere aipatu du Turunbaik: «Proiekturik hurbilenekoa *Kukubelt* da, kale eta antzokietan emango dugun ikuskizun berria. Eta, seguraski, negualdera, barneko muntaiari batean pentsatzen hasi beharko dugu. Euskal Herria oso txikia denez, berehala ematen duzu buelta, beraz, ikuskizunak etengabe berritu behar izaten ditugu».

Miguel Sanchez-Ostiz



Idazlea

«Neuregan konfiantza gehieirik ez dudanez, sariak oso ongi etorri zaizki»

Pozik dago oso Miguel Sanchez-Ostiz idazlea. Duela bi aste eskas jaso zuen Espainiako Kritikaren Saria, argitaratu duen azken elaberriagatik: *No existe tal lugar*. Nahiz eta Espainiako literatur sarietan sinetsi ez, eman diotenak beste zentzu bat duela dio, kritikak aukeratu duelako eta, gainera, doanekoa delako. Saria, bizitza, egiten duen lan literarioa eta beste izan ditu mintzagai ondoren.


BAZTANER SOSEGUA EMAN DIO SANCHEZ-OSTIZ-I. Zozala herrian duen etxetik hartu eta gero Elizondon egin genion elkarrizketan ez zegoen beste batzuetan bezain zorrotz. Gauean Maringo ubidetik zetorren haizeak herriko bazterrak astindu eta belardietan hausnarrean gau-pasa egon ziren behien zintzarrien dulundak esnatu omen zuen idazlea bere lo arinetik. Lo faltan egon arren, idazten ari den bost liburuko sailean alto egin eta sueltito hitz egiteko tartea eskaini zigun.

Espainiako Kritikaren Sari Nazionala jaso berri duzu *No existe tal lugar* elaberriagatik. Nola hartu duzu berria?

Primeran. Une egokian iritsi da. Ez naiz kekatuko, baina nire bederatzigarren eleberria zen, eta zortzi urteko lana eman didan hamargarrena bukatzen ari naiz. Oso eleberri zaila. Badakit irakurtzeko zaila dela. Kontatzen dena oso gogorra da, bertan agertzen diren gizakiaren zorigaitzak laztak dira. Aurreko lanek kritika arrakasta handia izan zuten baina irakurle gutxi. Egia da egiten ari nintzen literatura zaila zela. Baliteke ameslarri edo inozoa izatea, baina uste dut sariak nire lanari hegalak emanen dizkiola. Baliteke sariarekin lanak indarra hartzea.

Dena den, kritikariak emandako literatur saria da eta ez duzu dirurik jaso. Azken boladan Espainiako literatur sariel alde aurretik antzematen zaie norentzat diren. Irudian eta itxuran oinarritutako sariotan, nolabait, zureak haiek halako biko balloa izanen du, ezta?

Bai, jakina. Jaso dudana saria ezin dute ez talde editorialak ez komertzialak kontrolatu. Horiek Espainiako literatur gizartea eraldatzen ari dira eta nazkagarria iruditzen zait. Ikuskizunean, irudian



eta hutsaltasunean oinarrituak daude: ahal den gutxiena esan, itxurak egin eta merkataritza eragiketan oinarritu. Trukean idazleak dirua irabazten hasi dira, baina ez da arrazoi. Dena den, horrek guztiak nazka ematen dit. Oinarriak argitaratu baino lehen jadanik emanak dauden sariak antolatzen dira, eta oso borondate ona duen jende asko aurkezten dela ikusteak amorrarazi egiten nau. Hori antolatzen duenaren aurka oldartu beharrean gure, artean irri egiten dugu esanez badakigula nolakoa den egoera. Hortaz, horrelako sari bat zoragarria iruditzen zait, dituen ezaugarriengatik.

Zenbateko garrantzia ematen dio idazleak sariari? Idazterakoan aintzat hartzen da haien garrantzia?

Idazterakoan ez du eraginik, baina gerora bai. Kontrakoa diotenak gezurra dio. Batek sariak ateratzeko idatziko balu, pentsa, aterako ez balitu idazteari uko egingen lioke. Baina horrek ez du idazle bokaziorik. Egia da sariak irabazteak gero lagundu egiten duela. Konfiantza ematen dizute. Nik ez dut konfiantza gehieirik neuregan, eta izan ditudan sariak oso ongi etorri zaizkit.

«No existe tal lugar», saritutako lana, beti idatzi nahi izan duzun liburua dela esan duzu maiz. Horretan, aurreko lanek izan zuten ezkortasuna baztertzen da, nolabait. Esan liteke zure lanek baikortasuna bereganatu eta ildoa dutela edo ildo aldatu dutela?

Bai, erabat. Bukatu berri duan nobela aurrekoarekin oso zorretan dago. Hasieran, saria jaso duena ere oso basatia zen. Horrek irakurlearekiko begirunea eta erraztasuna hartzeko modu bakarra izatera fantastikoa duten istorioak sartzea zen. Adibidez, azken eleberrian narratzailearentzat oso garrantzitsua den pertsonaia bat sartu dut. Hark fantasiaren bizitza isla-



Miguel Sanchez-Ostiz idazlea iruindarra Elizondon. Luis Azanza

Oraindik egite asko geratzen zaion idae oparoa

Espainiako Kritikaren Sari Nazionala ez da Miguel Sanchez-Ostiz idazle iruindarra irabazi duen sari bakarra. 1950ean sortua, hainbat nobela, salakera eta poesia liburua idatziak ditu. Nolanahi ere, *No existe tal lugar* eleberriagatik jasotako saria izan dituenetakik esanguratsuena dela dio. Abokatu lanetan hamar urtez aritu ondoren, toga zintzilikatu eta luma hartu zuen ogibiderako lagun. Bere lehen nobela *Los papeles del ilusionista* izan zen. Harekin Nafarroako eleberri saria lortu zuen. Ondoren beste lan asko egin zituen: *El pasaje de la luna*, *La gran ilusión* (Euskadi literatur saria eta Heralde saria jaso zituen), *Las pirañas*, *Un infierno en el Jardín* eta *La caja china*, besteak beste. Horietaz gain,

beste batzuen artean *negra provincia de Flaubert*, *El camino*, *Pamplona* eta *El santo cielo* idatziak ditu. Iruñetik duela alde egin eta gero, Baztanen auzo hiriburuak ematen ez zion sariarekin Alde Zaharretik 80ko hamarkadan Mutiloara bizitzera Joan zen. Baina bat bako gehiago izan zitekeen bizi da, beste lau etxetz inguruko. Gustura dago oso Baztanen. Ezin hobea egin diotelako. Gaitzarrik gabeko ardi galdu eta biltzen omen da mendialdeko bere kasa ibiltzea gustuko du baztanen lagun on asko egin dituen Sobera ongi hartu nauten, azkenean du.

Bukatu berri du bere azken eleberria, 700 orrialdekoa: *La flecha del miedo*, literaturaren inguruko gogoeta. Idazlanak bestelako beharrek txandakatuak dira, erlea lore ederraren atzetik ibiltzen den moduan. Lorategian aritzen da, ordenadorearen aurrean idazten ez dagoenean. Orain gidatzekobaimena ateratzen hasi da, eta noizbehinka Iruñera, Baionara eta Donibane-Lohizunera egiten dituen bidaiak maizago egiten omen ditu.

Bihenera bitartean, hasia duen bost eleberriko saila izkiritzen dihardu. Espainiako Gerra Zibiletik hasi eta 60ko hamarkadara arte iragaten diren istorio samurrak eta laburrak izanen omen dira.

zten du nahigabeen aurrean. Uste dut nahiko eleberririk ez dela, eta aurreko lanek hori ez zuten.

90eko hamarkadaren hasierako garai ilunak atzean utzi dituzula esan liteke, beraz?

Bai. Orain bukatzen ari naizen nobela hasieran *Las pirañas* baino okerragoa zen, ez hizkera bortitza irakurtzeko, baizik eta han kontatzen ziren istorio ikaragarriengatik. Azkenean, eleberririk idatzi eta gero, aurkitu dut beste idazteko eredu eta uste ongi ateratzen zaldala. Hor idatzi dudana bizitza eta literaturari dagozkion balore sinboliko ikaragarriak ditu. Horren guztiaren azpian literaturaren inguruko gogoeta dago, irakurleak zer espero duen aurkitzea, zein den narratzailearen papera gaur egungo gizartean...

Eta zer uste duzu aurkitu nahi duela irakurleak?

Ene, oso zaila da! Irakurle guztiak ez dute gauza bera bilatzen. Batzuek ikuskizuna eta iskanbila nahi dute, eta beste batzuek beste irakurgaiak. Denetarako idazleak eta irakurleak daude, ez dut esanzen hau edo beste egin behar denik. Idazle espainiarren gauzarik nazkagarriena da sariren bat jasotzen dutenean guztiak paseatzera ateratzen dutela hamarrekoko bastoia. Han-hemen unibertsoan ordena jartzen hasten dira eta zer egin behar den eta zer ez esaten. Hori nazkagarria iruditzen zait; nahi duzuna egin, baina ez bultzatu.

Zure azken liburuan errealitatea eta fikzioa nahasten dituzu. Zenbateraino du eragina zure inguruneak eta egunerokotasunak idazteko garaian?

Izugarria. Gainera, hainbeste eragina du non ez zaidan bururatzen bizi eta ezagutzen dudana esparru geografikoaz baino idaztea. Badira 48 urte hemen bizi naizela. Beste lekuren batez idazteko esaten didatenean, han hartaz idazteko behar hainbeste bizi izan ez naizenez, inguruan dudana idazten dut. Ulertzen dudana bizitza ikusteko moduak.

Baztanera bizitzera hurbiltzea ihesaldi bezala uler daiteke, eta, aldi berean, literatur ikuspegi berri baten hasiera bezala?

Beste lan literario batzuen hasiera da, eta ihesaldia baino gehiago ate-kolpea izan da. Ihes egitean badirudi lurrez eta munduz aldatzen zarela, baina barrutik ez bazara aldatzen bizitza eta mundua joaten zaren tokira eramaten dituzu. Dena den, hiriz aldatu arren putzua ezin izanen duzu inoiz eraman.

Zure aurreko mundua alde batera utzi duzu. Ildo horretan, nekosoa da Nafarroan idaztea?

Kostatzen da, baina horrek interesa gehitzen dio. Beti gauzak begi zorrotzez begiratuko dizkiotenaren eskizun egonen banintz, ez dakit idazlea izan nintzatekeen. Idazleak independentzia arriskatu behar du. Ez baduzu independentzia erabiltzen, ez zara ez idazle ez deus. Idazle batek arriskatu egin behar du, baina kontuz, ez duzu guztien begien aurrean noiz ematen dizuten zain jarri behar. Horrela harrapatu egiten zaituzte, eta hori ez da idazle izatea, zozoa baizik. Besteen ideiekiko tolerantzia aldatuko bada herrialde honetan, erabiltzearen poderioz izan behar du.

Nafarroatik kanpo joateko gogoak ez zaitu tentatu?

Ez dut beste inon ikusten neure burua. Gainera, interesatzen zaidan mundua mugakoa da.

Asko nekatu zaituen liburu berri bat bukatu duzula aipatu duzu. Zer berri dakar?

Memoria modukoan hasi zen, eta oso eleberri felimanoa da. Autokritika da eta, aldi berean, bidaiaren kontaketa. Memoriaren erabateko berreskurapena egitea ez da posible. Guztiok ditugun traumak eta erretolika bera etengabe errepikatzea ez da posible. Bizitzeko ahaztu egin behar da. Une jakin batean kito egin behar duzu, min egin dizunarekin eskuzabal izan, eta onartu zein neurritan egin diozun min zeure buruari eta zein neurritan lagundu duzun zuk zeure kalterako. Bizitza ordenan jarri nahi izan dut.

Dena den, kontraesanean zabilta. Bizitzeko ahaztu egin behar dela diozu, baina idazleak behar du gogoratu, berriz bizi, gero idazteko.

Bai, baina gauzak nola gogoratzen diren, horretan dago guztia. Oroimenak asko du asmakizunetik eta guztiok joera dugu oroimenarekin tranpak egiteko. Beti argazkiaren alde hoberenean gelditzen saiatzen gara. Orduan, idazleak bere memoria paperera ateratzen argazkiarena egiten du, nahi duen tokitik ikustarazten du.

Idazlearen eta irakurlearen arteko harremana aipatu duzu, eta lehenak bigarrenarengan izan dezakeen eragina. Idazleak eragina izan dezake bere ingurunean?

Ez dut uste. Oso errealista naiz. Idazleak gizartea igorri nahi duen mezuak ez du eraginik politikara, ez bada lotsagabeki sartzen: orduan eragina handiagoa izan daiteke. Baina ez dut uste intelektuala eta idazlea aintzat hartzen direnik. Ez dakigu zein neurritan, azken boladan sortu diren foruek eragina izan dezaketengizartearen. Baliteke beste jokaera baten aurrean egotea. Orain arte gurdia eraman dutenak politikariak izan dira. Haiek egin digute bizitza euren irudiaren arabera, gure beharrik, nahiak eta itxaropenak zein diren aintzat hartu gabe.

Zer iruditzen zaizkizu beste intelektual batzuen jarrerak?

Onak, gauzak argitzen laguntzen dutelako. Pentsatu dut parte hartzea, baina inork deitu ez nauenez...

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador


Amaiurko gaztelu baltzarena Navascués-en bihotz-begietan

Arras gazte zendu zen Pedro Navascués tuterarrak Nafarroako konkistaren inguruan ondu liburua, irakurketa ezin aproposagorik dateke egun hauetarako, eta batik bat igande honi begira



EZ DIRA AMATATZEN ESPAINIAKO kultura ministrariak giza gaien inguruan irakaskuntza-erreformarako proposatutakoak gurean iziotu dituen suteak, eta oso oker ez banago, ez dira itzaliko, giza legez dago-kigun eskubidea onartzen ez zaiguno, areago nafarrei, tamalez, eta lurrikara politikoren bat ez agitzekotan, oraingoz bederen, hagitza aisa aurreikus-tan ez dena. Baina ez dezala inork pentsa, huraxe dela gaur goizeko kontu hutsala, bazter-rak arrotzera etorri diren lau erretxinen kezka, arazoa atze-atzetik baitator, nafarrok geure lurraren jabetasuna galdu genuenetik bederen. Konkistaren kronikela so egitea balizik ez da egin behar, betiko erdal testu-liburuetan zorioneko «anexión-incorporación» horri erreparatzea alegia. Hainbatetan, gazte-larren etxera mesedez eskatuta sartu ginelako ustea geratzen zait niri, hain da tematia Madrildik datorren leloa, hain da setatia espainiarren tllili-talala, nola gaupasa egin eta gero, dantzaldiaren musika-litsak ozen irauarazten zaizkidan tal gabe barne-barneko burmulne-tan.

Lelo aspergarri hura ixilaraz-ten ahalegindu zirenetakoa genuen Pedro Navascués Alarcón, tuterar xaloa. Amaiurren izan zen 1920.eko uztailaren 22an, gazteluaren muinoan altxatu behar zen oroitarriaren lehenbi-ziko harria jartzearen kariatz egin zen ospakizunetan; hantxe entzun ahal izan zituen Nafarroako aldundi-buruordea zen Lorenzo Orozen mintzaldia, hala nola Amaturko erretoreak nahiz Intzako Damasok euskaraz tajaturiko bereak. Eta Amaiurren ere izan zen, 1922.eko ekainaren 30ean oroitarri-inauguratu zeneko festan. Bitarte hartan, 1921.ean, *Sobre la defensa de Amayur* artikulua agertarazi zuen *Boletín de la Comisión de Monumentos de Navarra* aldizkarian, geroxe-ago *Amayur! Los últimos nava-*



rros izenburupean agertuko zuen liburuaren hazia izan zena. Azken hura, Arturo Campión-en hitzaurre batekin, 1923.ean eman zuen argitara Iruñeko Beskansaren alarguna-ren etxean, Migel Orreagako ezizenarekin, oraino hemeretzi urte zituela, eta artxibategleta-ko hauts zakarrak plazer handiz arnastú ostean. Geure benetako historian oinarriturik, bi artikulua gehiago atera zituen al-patu aldizkarian, *Documentos inéditos* 1923.ean, eta *La gesta de Roncesvalles* 1924.ean. Navascués-ek, ordea, ezin izan zuen ezagutu Amaiurko oroitarriaren kontra 1931.ean-egin erasoa, ordurako, tamalez, hila baitzen, tuberkulosiak jota. Bere jaloterrian zendu zen, Antso Azkarra bezala, 1925. urteko azken egunean. Jada Campión-ek haren osasun eskasaren berria jaso zuen, etsaiek eraso-tzeko erabili bide zuten argu-mentua: «No atino con el linaje de proporción que guarde la miseria fisiológica con la índole de las cuestiones esta temporada debatidas (...) Cierto, Miguel de Orreaga no es el Hércules Farnesio, más la expresión de sus ojos, la viveza de sus movimientos, el vigor de su voluntad, su resistencia maravillosa para los trabajos intelectuales, el curso ordinariamente apacible de su salud, no son signos, tampoco, de decaimiento vital».

Eta Navascués-ean etsaiek ez ziratekeen gutxi. Tuterako Josu-lagunen ikastetxean ikasi zuen, eta bertan ikasturte batez Orixe bera izan zuen irakasle. Azken honek ondu autobiografian Navascués-ean berri jaso zuen labur baina miresmenaz. Harri eta zur utzi zuen Orixe Navascués-

sen erudizioak; buruz baze-kizkizten Lope, Calderón, Alarcón, Moreto eta beste egile askoren lanak, eta munduko literatura ba omen zerabilen berebiziko trebe-ziaz, bere etxeko liburutegi ederrean tajuz eta artez zain-tzen zuena. Praderak bozke-tan porrota uztatu zuenean, Navascués-ek poz zantzuak era-kusteko arintasuna izan zuen, eta ikaskideek bazkaltzen zute-no, belauniko egotera zigortu zuen erretoreak; gainera, han-dik zebilen apez karlista batek, hantxe bertan, zaplasteko pare bi eman zizkion. Esangabe doa, Orixe-ek alpatu karlista hura, Praderaren beraren ezaguna ze-la. Agindu zigorra txikia baili-tzan, igandeko bisitaldiak debe-katu zizkion mutikoari. Kur-tso bukaeran, idazketa sari bat eman zion Orixe-ek, baina erre-ktoreak sari banaketan berean kendu zion ikastetxe guziaren aurrean. Literaturan ezezik, baita fisika eta psikologian ere lehen sariak irabazi zituen, bai-na errektoreak, aurrekoan be-zala, sari horiek guztiak ere kendu zizkion. Arrazoiak, non-bait, psikologia irakasleak kla-seko lan batetan kopiatzen har-rapatu zuela, azterketan inolaz ere baina. Horren ondorioz sa-riak kendu eta noten agrietan y eta o hizkiak agertarazi zizkio-ten, Josulagunen orduko ira-kaskuntza sistiman arras (xa-rrak zirenak, nonbait. Horrez gain, jolasorduetan ikasgelan geratu beharra zeukan, ikaste-tzeko arautegiaren araurik lu-zeena 15 aldiz osorik kopiatu bitartean. Ez zuen ongi bukatu gure Navascués-ek, bistan dena. Errektoreak zion destaina hain zen neurrigabekoa, ezen eroa deitzen zuen izen. Tuterako ikastetxean batxillergoa bost urtetan egin ostean, egotzi zu-ten, eta Bergarako domingota-rrenera joan behar izan zuen. Hantxe bikain atera zuen asig-natura guzietan, bakar batean izan ezik. Nafarzaletasunean bederen, ez zen izanen.

etorri ahalean

Patziku Perurena

ooo

Pelegrinoak gugan

MUNDUKO HERRI gehienek kultur-iragan izan du eragin izugarria pelegrino-ak, eta geopolitikan izan duen inportantzia estrategikoagatik, Euskal Herrikoan zer esanik ez. Ez dut uste ordea, behar bezala inork aztertu duenik gaila. Behar bada, abertzalismoak asmatu dituen jatorreria eta arrazakeria asko lotsagarri utzi bildurrez.

Alde honetatik, erlijioso ino-xente izeneko pelegrinoa baino askoz interesgarriagoa genuke, zalantzarik gabe, pelegrino ize-neko ijitojende merkatari negar-ti horren eragin soziokulturala. Noizbait gure historia ondradu bat idazten bada, ikusiko da Bi-dasoaz bi aldetako zoko ilunotan errotutako euskaldunon gi-zaerak, kulturak, odolak asko zor diola, besteak beste, Santio-bide inguruko merkatu beltz ha-ri.

Lehendik ere halatsu izana-rren, XV mendeaz honuntza, le-geak estutu ahalean, ugaldu zi-ren batipat erromes faltzuak. Felipe II.ak ere ez zauzkan santutzat: «*andan vagando sin que- rer trabajar, y haciendo otros delitos y excesos y para poder hazer con más libertad lo susodicho, fingen que van en romería a algunas cas- sas de devoción y ponen hábitos de romeros y peregrinos*».

Katibu gorriak ikusi izana zu-ten beste batzuk, jende izandun nobleengan errukia sortzeko al-tzak: «*engañando a las gentes con novelas de lo que padescie- ron en Argel, Constantinopla, Ma- rruecos, y en otras tierras de tur- cos y moros, fingiendo mil mentir- as*».

Baina, hutsaren hurrengo da hori, Orreagako prioreorde jaun Huartek esaten dituenen alde-an: «*Son vagamundos, holgaza- nes, valdíos, inútiles, enemigos de trabajos y del todo viciosos, que ni son para Dios ni para el mundo. estas gentallas y chus- mas viciosas y vahunas han con- vertido los santos hospitales y pl- os lugares de aquellos peregr-*

nos antiguos en cuevas de ladro- nes».

Gauza jakina da, Espaini al-dera pelegrino izenean jendea erruz sartzen zela Fraitzi alde- tik, «*donde hallan la gente más caritativa*». Halamoduzko jende- je askok, uzta garaia bukatu on- doan, erromes bidea hartzen zuen Espaini aldera, bere famili osoarekin, eta beren kopia ne- gartiak kantatuz, hemen jasota- ko sosekin «*vuelven alegres y lle- van a sus tierras toda la buena moneda de España, dexando la suya falsa, y falsos los dijes que venden*».

Cristobal Perez Herrera-koak, bere «*Diskurtsoetan*» hala dio: «*Excusarse han los franceses y alemanes que pasan por estos reinos cantando en cuadrillas, sacandonos el dinero, y se dice que prometen a las hijas en dote lo que juntaren en un viaje a San- tiago de ida y vuelta, como si fle- sen a las Indias, viniendo a Espa- ña con invenciones*». Bernako Ordenantzak ere, 1523an, erro- mes eskazalea «*buhonero, mero- deador y gitano*» delakotzat jo- tzen du.

Eta horratx: erromes hale- txen ondorekoen ondorekoak izan nahi dute, gure indepen- dentzia aldarrikatzera San Niko- lasetan, Santa Ageda bezperan, San Blasetan... eskera bidaltzen ditugun euskal aingeru xuriok, edo noren ondorekoak bestela?

Antonio Errok ere halaxe uste ditu: «*Independentzia? Ba al da- kiz hik zelan ziren independente- ak? Sattobidean zetozen pelegri- noak, XII. medean oraindik, as- tozartzat hartu eta bizkargaine- ra igota erabiltzen zituzten bas- koak basati sano haterk, haterk hituan independenteak. Orain- go negarti ergelok? Independen- teak hok? Bo bo, aze indepen- dentzia hona, beren gogobitotze- tan pelegrino mixerable haterk gi- zaerarik zikinenak, faltzuenak, eta xitalenak balizik platu ez di- tuztenona!*».

Mirandek esaten omen zuen Euskal Herria ez zela txipi lu- rrez, gizatasunez balizik. Ongi bai, halare!

Ziria

• Motxorrosolo •

Bil, bil, bil

BATERA ARITU BEHARRA, GALIZARREN ANTZERA. HEREN HORREN ORDEZ- kapenaren bila. Eleketariari erreparatuz gero, hitzak, Axula- rren parekoak. Nafarroa Garaiko gizarteaz egin ohi den irakurketa zuzena izan daiteke. Txertoa, aldiz, ez dirudi sobera eraginkorra denik. Hasmentan, bederen, heren horren bilgunea izan nahi dena herrena uzten baita. Lehenbiziko unetik sektore oso bat baztertuz. Bil, bil, bil.

Rosa Aldaz

Enpresaria

«Enpresariak asko sofritzen du»

Rosa Aldaz Iruñeko Manterola gozogintza enpresako arduraduna da. Duela gutxi Nafarroako urteko emakume enpresari hoberenaren saria irabazi du. Enpresari ona izatea zaila dela dioen arren, baikortasuna dario nonahi. Duela hamahiru urte, senarra hil eta gero, enpresaren ardura hartu zuenetik hori bera kutsatzen saiatu da bere ardurapean dituen 22 langileei.



soslaia

Rosa Aldaz iruindarrak Kazetaritza ikasi zuen eta gozogintzan buru-belarri murgildu baino lehen kimikako klaseak ematen zituen. Kazetaritza lanetan aritu ez bada ere, erretiroa hartzean idaztea gustatuko litzaioke. Lumarekin trebatzeaz gain, ahaztuxek dituen euskara, frantsesa eta ingelesa ikasten hasiko omen da.

Sasoi onean dago Rosa. Berandu oheratzen bada ere, bospasei ordurekin aski du eta goiz altxatzen da. Jaiki eta etxean dituen lau seme-alaben eta bi iloben gosaria prestatzen du egunero, ondoren mezetara joateko. «Gorputza ez ezik, arima ere elikatu behar delako», dio.

Aisialdirako beta gutxi duen arren, nohizean behin zinemara joaten da seme-alabekin. Igande arratsaldetan Nafarroa ezagutzea gustatzen zaió. Haizea hartzerá eta oinez ibiltzera ateratzen da Iruñetik, baina etxean ere oso gustora egoten omen da. Gaur, Aste Santua izaki, urtero bezala gaueko ofizioetara joanen da Katedralean dagoen Sal si puedes kalean bizi diren mojekin.

KAZETARITZA IKASI BAZUEN ERE, hezkuntzan aritu zen enpresari bilakatu baino lehen. Irakaskuntza baztertu, eta gozogintza ikasteari ekin zion. Geroztik ez da gelditu, hiztuna eta jakinmin handikoa, lanean harrapatu genuen enpresako bulegoan.

■ **Nafarroako urteko emakume enpresaririk hoberenaren saria jaso duzu duela gutxi. Nola hartu duzu saria?**

Hasieran asko arritu nintzen. Ez nuen inolaz espero. Egunak joan ahala sariaren balioan pentsatu dut. Zure beharra betetzeagatik sari bat ematen badizute, pozik egon behar duzu eta eskerrak eman.

■ **1810an zabaldu zen Manterola gozodenda enpresa Iruñean. Orain une gozoa bizi baduzue ere, senarra hiltzean guztia- ren ardura hartu behar izana ez zen lan erraza izanen.**

Oso gogorra izan zen. Gidaritza hartu nuenean ez negoen izutua. Ikasketa unibertsitarioak nituen eta banekien edozein gauza ikasteko gai nintzela. Hori egin nuen, ikasten saiatu. Asko erreparatu eta feriaz feria ibili. Burua horretan jarri nuen. Banekien ez nituela lanpostu berriak sortuko baina nituen 22ak mantendu behar nituen eta hori egin dut. Espainiako konfiteria enpresarik zaharrena dela eta senarraren lana jarraitu behar nuela pentsatzeak lagundu zidan. Gainera, enpresa garatzen joan da. Hasieran konfiteria dena bakarrik zen. Baina industrian hotza sartzean gozogintza barnetatzen da eta erraz galtzen diren produktuak gehitzen dira. Gero, multinazionalak etorri dira eta jan egiten zaituzte. Egoera gainditu eta garatzen joan behar duzu. Delikatessen batean dauden pro-

duktuak geureganatu ditugu. Arrakasta lortzeko etengabe gartzan ari behar duzu eta egunean egon. Hori ezinbestekoa da.

■ **Oso astiro bada ere, gero eta emakume enpresari gehiago daude. Zein dira haren ezaugarriak?**

Emakumeak intuizio handia du. Bestalde, boterea erabiltzeko modua gizonetzkoaren oso ezberdina du. Gizonak boterea bertikalki erabiltzen du, hierarkizatuagoa da. Aldiz, emakumeak horizontalki jarduten dugu, kooperatiba moduan. Badakit nire langileak ez dutela zer ikusirik bata bestearekin, bakoitza bakarra eta errepikaezina dela. Zein ezaugarri dituen eta zertan aritzen den hobekien jakin behar dut. Gainera, lan eskuordetu egiten dut. Emakumeak gainera, sofritzen ohi-tuak gaude. Enpresariak asko sofritzen du, baina jasan egiten da.

■ **Nola?**

Oso baikorra naiz. Gauzak gertatzen dira Jainkoak horrela nahi duelako. Txingurriak bezala lan egin behar da. Balore hierarkia dut. Nire irabazia nire seme-alabak dira. Beraz, ama naizenez lehentasuna horiek dute eta horien arabera antolatzen dut guztia. La-

nean asko sofritzen badut ere, etxera joatean eginbeharrez aldatzen dut. Horrek lasaitu egiten nau eta ahaztu egiten zait enpresa dudala eta zortzi orduz lasai asko egiten dut lo. Guztiak du bere tokia eta ahaztu egiten dituzu arazoak gainerakoan ezin duzula-ko bizi.

■ **Zure seme-alabek iritzi bera dute?**

Oso pozik daude. Bizitza dibertigarria egin behar da. Beraiek ez naute negarrez ikusi. Lan erruz egiten dut. Egunero gaueko hamarrak arte nago gozotegian eta igandetan arratsaldeko hirurak arte, baina hala ere, nire seme-alabekin gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzen dut. Ez naiz besteak baino gehiago, baina ongi antolatzen saiatzen naiz.

■ **Zer duzu gustokoan zure lanean?**

Gehien gustatzen zaidana salmahaiaren atzean egotea da. Bezeroa ongi hartzen salatzen naiz, saldu egin nahi dut baina ez dut bezeroa nazkatzen. Badakit salduko dela Manterolak oso izen ona duelako. Horrela, jendeak zer nahi duen antzematen duzu eta haien gomendioak ere aintzat hartzen ditut.

■ **Manterolak mende bat baino gehiagoko tradizioa du. Izenak ez du erantzunkizun handia ematen?**

Bai, baina egin behar dudanez, egin egiten dut. Lanean murgiltzen naiz eta ez naiz pentsamendu hutsaletan murgiltzen, denbora eta lasaitasuna galarazi besterik ez dutelako egiten. Oso baikorra naiz.

■ **Zer eskaintzen du Manterolak besteek ez dutena?**

Manterolaren produktoa bera, ezberdina da.

■ **Hainbeste izen duen markari, zein ezaugarri berezi eman diozu?**

Guztia behar den bezala edukitzeaz arduratu naiz: polita, garbia eta itxura ezin hobearrekin. Kalitatea, elikagaietan ez ezik, irudian ere eskaini behar da.

■ **Oinordekorik baduzu enpresarako?**

Sagrario alaba. Herizaintza ikasi ondoren, Psikopedagogia eta Logopedia masterra egin zituen. Hala ere, Manterolak txoratu egiten du. Oso langilea da eta oso gusto ona du. Txinaurrien moduan lan egiten du egunero.

→ Irene Arrizurieta

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1998ko apirilaren 10a

patxi@earthling.net

BEKARIO!



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Eta gaztelaniaz mintzatzen ikasiko du?

HORRA, ARTEMEIN, IRUÑEKO AMA gazte bati aditutako arrangura. Izan ere, zalantzan omen zebilen neskatoa D eredura eraman ala ez. Diputazioak abiarazitako kanpainak ez zion deus ere argituko, Markotegi eta Arellano beldurrak harturik baitabilta. Horrexegatik, aurtien ez dute plazaratu nahi izan euskararen aldeko hitz mendreena ere, eta, are, Hezkuntzako teknikari bati debekatu egin diote D ereduaren gaineko solasaldi batean parte hartzea. Hortaz talde euskaltzaleen eta udaletako euskara zerbitzuen esku gelditu da euskarazko ereduaren aldeko ahalegina, eta, hauen bidez barreiatutako mezuak duda-muda hura kenduko zion ama gazte hari, hots, «D eredua baita bi hizkuntzak ongi menderatzeko balio duen bakarra». Lekutan dago hori duela hamabi-hamalau urte zabaltzen ziren mezuekin alderatuta, zorioneko aldaketa gertatu baita. Izan ere, gauzak argi dituenari sobran zaizkio euskararen aldeko goiburuak oro. Zalantzakor dabiltzanak, orain artean euskararen munduan ibili ez direnak, horietatik ekarri behar ditugu euskararen mundura, eta, horietatik begira, alferrekoak, eta, are kaltegarriak ere, izan ziren (eta dira) «hizkuntza nazionala» eta «euskara gure borroka» bezalako pankartagalak. Beharrik, egun bertzelako hitzak erabiltzen ari dira eta, urtetik urtera, euskarazko eredua gora joaten den heinean, gero eta azkarrago jokatu beharko dugu, zentzuz eta burua erabiliz, pake giroan, beti ere. Bertzenaz, jai dugu. Alde horretatik, gaitzerdi Auzaerkidegoan talde batek A ereduaren aurka errandakoek Murtxanteko bazterrak inarrosi ez dituztenean, herriko neskatico-mutiko guztiak A ereduan ari baitira. Alimaleko lorpena da. Dena dela, penagarria zinez, gurasoek D eredua aukeran ez izatea.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Gares:** La Polla taldeak Fundamental aretoan joko du bihar 23:00etan.
- **Iruñea:** Garazi tabernan Jazz Session Band-en emanaldia izanen da datorren asteazkenean, 22:30etan.
- **Iruñea:** Rossendok Anaitasun kontzertua eskainiko du ostegunean, 22:00etan. Sarrerak: 1.800 pezeta alde aurretik, 2.000 txarteldegian.
- **Tutera:** Gaztanbide aretoan kontzertu sakroa izanen da 20:00etan. Bertan izanen dira: Pablo Sarasate Orkestra, Santo Tomas abesbatza eta Scola Cantorum taldea.
- **Argodes:** Barrikada taldeak joko du bihar, 12:30etan, kasi-noan. Sarrerak 1.500 pezeta balio du.
- **Tutera:** Hautsik antolatuta Def con dos taldeak kontzertua eskainiko du 21:00etan, gaur, Elola aretoan.

ZINEMA

- **Zangoza:** Labrit zinematokian Wallace eta Gramit pelikula eskainiko da datorren ostegunean 18:00etan euskaraz.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Pintzel Galerian, gaurtik hasi eta hilaren 25a bitartean, Jokin Manzanos Garaloa margolariaren lanak dira ikusgai.
- **Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkartean Angel Olloronen mendiarri buruzko argazki erakusketatik ikusteko aukera dago apirilaren bukaera arte. Ordutegia: 19:00etatik 21:00etara.
- **Iruñea:** Teresa Sabateren margoak ikusteko aukera dago Lacava kafetegian apirilaren 19a bitartean.
- **Alzoan:** Sex Haizegoak pintura erotikoak biltzen dituen erakusketa zabaldu du Artsaia aretoan apirilaren 27ra arte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Aste Santuko ospakizunak euskaraz egin nahi dituenak badu aukera. Ostiral Santuan arratsadeko 5:30etan eta Larunbat Santuan gaueko 9:00etan izanen
- **Barañain:** Udalak herriko elkarte sozio-kulturalentzako eskaintzen diren dirulaguntzen oinarriak kaleratu ditu. Jaso nahi dituenak apirilaren 24ra arte du proiektuak aurkezteko aukera. Oinarriak, Kultur Etxean edo 18-53-10 telefonora deituz.
- **Iruñea:** Eva Lootz artistak *Cada vez que una puerta* hitzaldia eskainiko du asteartean Iruñako Kutxan, 20:00etan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Animalezko zapatak

Parke honetan ibiltzen ginen, baina lekutzen, betiko, nire gogoarekin. Ez dut nolnahi atzenduko.

